

Podemos Euskadi  
reclama avanzar hacia  
un alarde público igualitario  
en Hondarribia y da su apoyo  
al nuevo equipo de gobierno

Euskadiko Podemosek  
berdintasunezko alarde  
publiko baterantz aurrera egitea  
eskatu du Hondarribian,  
eta babesa adierazi  
dio gobernu talde berriari

## Podemos Euskadi reclama avanzar hacia un alarde público igualitario en Hondarribia y da su apoyo al nuevo equipo de gobierno

8 de septiembre de 2023. ¿Alarde Igualitario en Hondarribia? Aunque este año no sea así, el cambio de color político de la alcaldía, en manos ahora de Abotsanitz, un equipo de Gobierno que ya ha dado muestras de querer promover la Igualdad efectiva en el Alarde y las múltiples voces de la ciudadanía pidiendo arreglar el conflicto abren una ventana de oportunidad para que esta sea la legislatura del cambio en Hondarribia. A esto cabe sumar el hecho de que la diputada general de Gipuzkoa ha apoyado a todas las mujeres que desfilan vestidas de soldado, sumándose así a la ya habitual presencia de Emakunde y Ararteko, y de formaciones políticas como Podemos y Ezker Anitza-IU, entre otros. De modo que, este año, quienes apoyan la libre participación de mujeres y hombres en igualdad de condiciones en las fiestas tienen el apoyo de todas las instituciones públicas de Euskadi y de todos los grupos políticos del Ayuntamiento, a excepción del PNV, cuyos concejales han declinado la invitación del alcalde; actitud que lamentamos profundamente, sobre todo teniendo en cuenta que sus homólogos de Irun sí recibieron al Alarde Igualitario este pasado 30 de junio.

Después de 26 años de lucha feminista por la igualdad de mujeres y hombres y contra la discriminación por razón de sexo, el contexto político y social han cambiado, el marco jurídico ha avanzado y quienes defienden la hegemonía patriarcal en las tradiciones son cada vez menos y tienen menor respaldo social. No obstante, todavía dan muestras de rechazo a la igualdad y cometen atropellos como el protagonizado por la Banda de Música del Alarde, exigiendo a sus miembros la firma de una declaración a modo de garantía de compromiso con su causa: “contemplando a la mujer en la participación del acto del propio Alarde como representación única de la figura de la cantinera”.

Del mismo modo, cabe destacar la reciente reforma de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi que, además de mantener en su artículo 25 la intención de adoptar medidas para evitar cualquier discriminación por razón de sexo y promover la participación equilibrada de mujeres y hombres en las actividades culturales de la CAV, añadió un apartado que específicamente prohíbe la organización y realización de actividades culturales en espacios públicos en las que no se permita o se obstaculice la participación de las mujeres en condiciones de igualdad con los hombres.

---

Por estos motivos, Podemos Euskadi seguirá apoyando la consecución de un Alarde igualitario, así como a la compañía Jaizkibel en las fiestas de Hondarribia. La igualdad es un derecho fundamental, con reconocimiento internacional, que debe empezar en las calles de pueblos y ciudades, en las fiestas, recintos feriales y espectáculos. Normalizar la participación de las mujeres en todos los ámbitos requiere de un esfuerzo colectivo para con la igualdad real entre hombres y mujeres, para que podamos ver el Alarde Igualitario que deseamos ver.

Podemos Euskadi insta a que desaparezca cualquier atisbo de discriminación en las fiestas de Hondarribia. Tal y como dice Abotsanitz, “el Alarde es un fiesta de todos y todas”; por ello, se trabajará para que vuelva a serlo garantizando el derecho de las mujeres a participar en igualdad en la fiesta.

Por todo ello, una amplia representación de Podemos Euskadi encabezada por la portavoz en el Parlamento Vasco, Miren Gorrotxategi, ha respaldado este 8 de septiembre en Hondarribia la lucha por un Alarde Igualitario acompañando a la compañía Jaizkibel y manifestando su apoyo a las acciones inclusivas, igualitarias y feministas que se pongan en marcha para la consecución de la IGUALDAD, característica que debería unirnos y nos enfrentarnos o separarnos.

En esta tarea, Podemos Euskadi ha trabajado para que se avance en cuestiones igualitarias y de no discriminación con la apuesta clara por un aumento presupuestario en materia de Igualdad que llega hasta los municipios; con el impulso de un estudio ya presentado sobre diferentes modelos festivos desde una perspectiva de género; así como con diagnósticos sobre Igualdad (incluidos alardes y fiestas) en municipios como Irún. Además, se ha instado a Emakunde y el Gobierno vasco para que se acompañen procesos de transformación de las fiestas de nuestras localidades; se ha apoyado la implementación de la “Guía para impulsar procesos locales de prevención de la violencia machista contra las mujeres durante las fiestas” elaborada por Emakunde, así como la formación a instituciones locales. No solo eso, se ha instado a Emakunde para que emita recomendaciones concretas dirigidas a aquellos municipios en los que existan claros ejemplos de desigualdades y discriminaciones en sus fiestas.

---

Asimismo, la formación ha impulsado la escucha y el debate sobre la participación igualitaria de las mujeres con comparencias tales como las de las autoras del estudio “Estrategias para la participación de las mujeres en las fiestas locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco”; la de Miren Echeveste, concejala de Igualdad de Irun en aquel momento. para explicar los resultados y las conclusiones de la encuesta sobre violencias machistas a las mujeres de Irun o la de la directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer para que explique su punto de vista sobre la incorporación del ámbito festivo en las políticas de igualdad, y las recomendaciones que hace a los municipios en los que se produce una situación de desigualdad en el ámbito festivo.

Podemos Euskadi, mediante su representación en el Parlamento Vasco, como parte de la coalición Elkarrekin Podemos-IU; mediante los Grupos Junteros presentes en los tres Territorios Históricos de la CAE, y a través de los y las representantes municipales de los municipios vascos donde tenemos presencia, se compromete a promover el debate y la aprobación de medidas y políticas públicas de forma que en ningún terreno se siga discriminando a las mujeres por el mero hecho de serlo, ni ninguna persona se vea discriminada por su identidad de género o sexo.

---

## Euskadiko Podemosek berdintasunezko alarde publiko baterantz aurrera egitea eskatu du Hondarribian, eta babeska adierazi dio gobernu talde berriari

2023ko irailaren 8a. Berdintasunezko alardea Hondarribian? Aurten hala ez bada ere, orain alkatezaren kolore politikoa aldatu eta Abotsanitzen esku dagoen une honetan, Alardean benetako Berdintasuna sustatu nahi duela erakutsi duen Gobernu talde bat dagoenean, eta gatazka konpontzeko eskatzen duten ahotsa ugari dauden unean honetan, aukera-leiho bat ireki da aldaketaren legegintzaldia izan dadin Hondarribian. Gainera, Gipuzkoako ahaldun nagusiak soldaduz jantzita desfilatzen duten emakume guztiei eman die babeska, eta, horrela, bat egin du Emakunde eta Arartekoaren ohiko presentziarekin, bai eta Podemos eta Ezker Anitza-IU alderdien presentziarekin ere, besteak beste. Beraz, aurten, jaietan emakumeen eta gizonen parte-hartze askea babesten dutenek Euskadiko erakunde publiko guztien eta, EAJrena ezezik, Udaleko talde politiko guztien babeska dute; izan ere, EAJko zinegotziek uko egin diote alkatearen gonbidapenari. Zinez deitoratzen dugu jarrera hori, batez ere kontuan hartuta Irungo EAJko zinegotziek harrera egin ziotela Alarde parekideari joan den ekainaren 30ean.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta sexuagatiko diskriminazioaren aurkako 26 urteko borroka feministaren ondoren, testuinguru politikoa eta soziala aldatu egin dira, esparru juridikoak aurrera egin du, eta tradizioetan hegemonia patriarkala defendatzen dutenak gero eta gutxiago dira eta babes sozial txikiagoa dute. Hala ere, oraindik ere berdintasuna arbuiatzen dute eta Alardeko Musika Bandak protagonizatutako jarreraren moduko zapalketak egiten dituzte, bere kideei deklarazio bat sinatzeko eskatu baitie, bere kausarekiko konpromisoaren berme gisa: “Alardearen beraren ekitaldian parte hartzen duen emakumea kantineraren ordezkari bakar gisa hartuz”.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea berriki erreformatu dela azpimarratu behar da; izan ere, 25. artikuluan, EAEko kultura-jardueretan sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko eta emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzeko neurriak hartzeko asmoa mantentzeaz gain, atal bat gehitu zuen, berariaz debekatzen duena emakumeek gizonekiko berdintasun-baldintzetan parte hartzea onartzen ez duten edo hura oztopatzen duten kultura-jarduerak gune publikoetan antolatzea eta egitea.

---

Arrazoi horiengatik, Euskadiko Podemosek alarde parekidea lortzearen alde jarraituko du, baita Jaizkibel konpainiari babesa ematen ere Hondarribiko jaietan. Berdintasuna oinarritzko eskubidea da, nazioarteko onarpena duena, eta herri eta hirietako kaleetan, jaietan, azoka-esparruetan eta ikuskizunetan hasi behar da. Emakumeen parte-hartzea eremu guztietan normalizatzeak ahalegin kolektiboa eskatzen du, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzeko, ikusi nahi dugun Alarde parekidea ikus dezagun.

Euskadiko Podemosek Hondarribiko jaietan edozein diskriminazio-zantzu desagertzeko eskatu du. Abotsanitzek dioen bezala, “Alardea guztion jaia da”; horregatik, emakumeek festan berdintasunean parte hartzeko duten eskubidea bermatuko da.

Horregatik guztiagatik, Euskadiko Podemosen ordezkariak zabal batek, Miren Gorrotxategi Eusko Legebiltzarreko bozeramailea buru, Hondarribiko Alarde Parekidearen aldeko borroka babestu du irailaren 8an, Jaizkibel konpainiari lagunduz eta BERDINTASUNA lortzeko abian jartzen diren ekintza inklusibo, berdintasunezko eta feministei babesa emanez. Ezaugarri horrek bat egin beharko gintuzke eta ez banandu.

Zeregin horretan, Euskadiko Podemosek berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko gaietan aurrera egiteko lan egin du, eta, horretarako, apustu argia egin du berdintasunaren alorrean aurrekontua handitzeko, udalerrietara iritsiz; genero-ikuspegitik hainbat jai-ereduri buruz aurkeztutako azterlan bat bultzatu du, eta berdintasunari buruzko diagnostikoak egin ditu (alardeak eta jaiak barne) Irunen, esaterako. Gainera, Emakunderi eta Eusko Jaurlaritzari eskatu zaie gure herrietako jaiak eraldatzeko prozesuetan lagun dezatela; Emakundek egindako “Jaietan emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko tokiko prozesuak bultzatzeko gida” ezartzea babestu da, bai eta tokiko erakundeei prestakuntza ematea ere. Ez hori bakarrik, Emakunderi eskatu zaio gomendio zehatzak emateko jaietako desberdintasun eta diskriminazioen adibide argiak dituzten udalerriei.

Era berean, alderdiak emakumeen parte-hartze berdinzaleari buruzko eztabaida eta entzumena bultzatu du. Besteak beste, honako hauek agertu dira: “Emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko jaietan parte hartzeko estrategiak” azterlanaren egileak; Miren Echeveste Irungo Berdintasun zinegotzia une hartan, Irungo emakumeei indarkeria matxistei buruzko inkestaren emaitzak eta ondorioak azaltzeko; eta Emakunde-emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria, jai-eremua berdintasun-politikan sartzeari buruz duen ikuspegia azaltzeko, eta jai-eremuan desberdintasun-egoera bat gertatzen den udalerriei egiten dizkien gomendioak azaltzeko.

---

Euskadiko Podemosek Eusko Legebiltzarrean duen ordezkartzaren bidez, Elkarrekin Podemos-IU koalizioaren parte gisa, EAeko hiru lurralde historikoetan dauden batzarkidetaldeen bidez, eta bertan gauden euskal udalerrietako udal-ordezkarien bitartez, konpromisoa hartzen du eztabaida eta neurri eta politika publikoen onarpena sustatzeko, eremu batean ere emakumeak diskriminatzen jarrai ez dadin emakume izate hutsagatik, eta inor ez dadin diskriminatu genero-identitateagatik edo sexuagatik.